

Muga esperientzia tenporalean

La Gavia eta Los Berrocales-en itzulinguruka

Laburpena: Lan honek hiri-mugak esperientzia tenporalaren ikuspegitik ikertzen ditu. Madrilgo ertzetan gertakarien arrasto materiala bilatu dut, bukagabe dagoena, iruditerian berreraikia izan zitekeen hori. Postal batzuetan atzeman dut eta denboretan aberatsa den aldiri baten irakurketa batean artikulatu dut errealitate eta oroipenen paisaia bat.

Hitz-gakoak: denbora, Gavia, Berrocales, mugak.

Abstract: This work explores the urban fringe from the temporary experience. In Madrid outskirts, I look for the event material rest, those not finished yet, those that let be rebuilt in the imaginary. I catch them in postcards and build a temporary urban fringe lecture, a landscape of the reality and the evoked.

Key words: time, Gavia, Berrocales, fringe.



Irene García

Arkitektoa, irakasle laguntzailea Madrileko Arkitektura Goi Eskola Teknikoan

Bidaltze data: 2016-07-03

Onartze data: 2017-01-31



Ondorengo ikerketan Madrileko hego-ekialdeko periferian egindako zenbait itzuliren ondoren gauzaturiko hausnarketak eta esperientziak biltzen ditut. Esplorazio horien xedea mugako paisaia posible bat ulertzea da, norbanakoaren eta lurraldearen arteko erlazioa aldatzen den espazio hori. Hala ere, toki horien intentsitateak muga-paisaia hori esperientzia tenporalaren ikuspegitik ulertzera zuzentzen gaitu. Atxiki dudak postal bilduma itzuli horien fruitu da. Kontakizun propio bat dute postalek. Baita denboranahasketa bat ere: tokiaren denbora, irudiaren denbora, irakurketaren denbora... Postaletan harrapatu ditudan uneak esperimentaturiko paisaiaren inguruko hausnarketak dira. La Gavia eta Los Berrocales-etik egindako ibilbide hauek esperientzia tenporal luzearen inguruan hausnartzen dute, gure imajinarioan igarotako unean eta imajinaturiko etorkizunen bila.

Lehen bisita Vallecas-eko zabalgunera egin nuen, La Gavia izenez ezagutzen den gunera batera. Madrileko hegoaldean kokaturik dago eta bi azpiegitura garrantzitsuk mugatzen dute: M-45 eta M-50 autobideek. Hiriburua udal-muga definitzeaz gain, hirigunearen eta landa-lurraldeen arteko muga ere markatzen du. Higiezinen burbuilaren estandaren ondoren, promotore eta eraikitzaileek azkar abandonatu zituzten bertan garatzen hari ziren proiektuak. Horren emaitza denboran izozturik geratu den paisaia bat da. Eraikuntzaren erritmoa frenetiko izatetik ia etena izatera pasatu da. Eraikinen aurreratzea denboran luzatu egin da, ia gelditu arte, eta gutxika erritmoa inbertitu egingo den inflexio-puntura gerturatzen hari da. Hiriaren hazkuntza modu bortitz batean gelditu da. Hiri-muga ez da modu zaindu batean marraztu, baizik eta bat-batean abandonatu

da. Ez da planoetan agertzen, baina hiriaren historiaren parte dira eta zenbait kasutan, bukatuta dagoen horrek baino gauza gehiago kontatzen dizkigu. Hiri bere hondakin propioetan itota ikus daiteke (01. Postala). Topografia hau esploratu nuen lehendabizi. Kontraesan bat dirudien arren, hiribide eta urbanizaturiko plazetan baino bizitza gehiago aurkitu genuen. Nolabaiteko tentsio bat sortzen da zentro komertzialaren, kontsumora bideraturiko espazio bat, eta hiri-mugaren artean, ez ordutegirik, ez murrizketarik ez duen parke amaigabea. Biztanleek lurralde hauek bereganatu eta beren eguneroko bizitzaren parte bilakatu dituzte.

Paisaia hauek hiriaren bilakaeraren gogorturiko une bati buruz hitz egiten digute. Eskala erraldoiko zabalgunek dira, oraindik errealak ez diren biztanle masa handientzat pentsaturikoak, eta, horrek, norbanakoa lausoturiko puntu bat bilakatzen du hainbat bide eta zuhaitz-errenkada dauzkaten etorbideetan (02 Postala).

Biztanleek fikzioak (eta ez errealitateak) dituzten lurraldeak esploratzea erabaki nuen (03 Postala). Esperientzia propioetik argitara ekarri eta normalean oharkabean pasatzen diren gauza horiek ikusarazteko ahalegina egin dut. Horietan bukatu gabe dagoen hori bilatu dut. Hasieran, itzulinguruak krisiaren hondamenaren aztarnen bilaketa bezala orientatu nituen. Ondoren, ordea, aztarna horiek imajinarioa aktibatzen dauzkaten gaitasunen bila bideratu nituen. Ez nuen aztarna handirik bilatzeko grinarik izan, baizik eta hondakin xumeak bilatu nituen, lurralde horietako biztanleen eguneroko bizitzaren parte diren hondakin horiek. Egunerokotasunaren arakatzeko horrek norbanako anonimoaren historia duin bilakatzen du, bera



Irudia ~ 01 postala. Aurrealdea.

Egilea ~ Irene García.

baita historia horren benetako eraikitzailea. Anekdotikoa dena erregistratzea eta duin bilakatzea, «aurrerapenaren jarraitutasuna zatien bitartez etetea eta inoiz irakurri ez dena idaztea» baita (Benjamin, 2012).

Bigarren itzulian heterokroniak bilatu nituen, esperientzia tenporalean denbora-nahasketa bat pizten duten latentzia-espazioak, esperientzia eta iraupen tenporalaren berreskurapena, denboraren nozioa galtzea egoera ezberdin bakoitzaren historia berreraikitzean. Nolabait, modu kontziente batean lurraldearen atzerapen lasaiak zer erakuts dezakeen topatzea. Igarobide arrunt bat zeharkatzearen oroitzapena eta modu kontzientean igaro nituen espazioen oroitzapenak konparatu ditut.

Ondoren egindako beste itzulunguru batzuetan La Gaviako hiri-mugetan aberastasun tenporal hori bilatu nuen. Muga-lurralde hauek globalizazioarentzat kontrolaezinak dira. Hiri-plangintzaren hondakinak dira. Abandonaturik daude eta kontrol-gabezia horrek egoera espontaneoak ahalbidetzen ditu. Bilaketa hauen interes nagusia denboraren esperientzia pertsonala da, denbora bakarraren ezabatzea (Huyssen, 2008). La Gavia bezalako leku batek esperientzia tenporalaren heterokronia berreskuratzea ahalbidetzen du, eta kapitalismoaren denbora linealaren hegemonia apurtzea.

Kameraren bitartez beste denbora batera eraman gaitzaketen momentuak harrapatu nituen. Postal forman editatuak nituen eta zabalguneen postalen bilduma bat eratu nuen esperientzia tenporalaren ikuspegitik. Postalek kontakizun pertsonal bat imajinatzea ahalbidetzen digute. Pertsonala, norberak egindako irakurketa bakarra delako.

Itzulian aztarnen denbora ageri da eta baita bide horretan aurkitutako pertsonen denbora ere, bilaketa honen osagai erreala. Postala ez da soilik momentu jakin batean harrapatutako irudi bat, baizik eta, hausnarketa bat, leku horren kontakizun bat.

Hasiera batean urrunetik soilik lortu nuen Los Berrocales-eko espazioa hautematea. Itzuliaren amaieran hezituriko espazio horretara sartzea lortu nuen.

La Gavia eta Los Berrocales banatzen dituen zubia igarotzean orainaldia isolatu egin zen. Ehunka pertsonak beren bizitza osoko aurrezki guztiak inbertitu zituzten gune hartan estolderia-sistema eraginkor bat baino ez zegoen eraikita. (04 Postala)

Beranduago lur gainean urraturiko plano bat aurkitu nuen. Jada, aurre-lurralde hau ez da inora ez doan igarotze-espazio bat, beste zerbait bilakatu da. Sinpleki, jada bada. (05 postala)

Ezin izan nuen denbora neurtu, haize hotzak soilik bota baininduen bertatik. Los Berrocales aztarna moderno bat bilakatu da (SMITHSON, 2006).

Inoiz biztanlerik izan ez duen espazio baten hondakina. Eraikia izan aurretik hondakin handi eta dotore bat da bere eskala handia dela-eta. Hain da handia Los Berrocalesen potentzia, ezen bertan milaka pertsona bizi izan direla baitirudi.

Aztarnak iraganeko gertakizunetara garamatzate. Aztarna gertaeren lekuko fisikoa da. Esperientzia tenporal iraunkor bat sustatzen du. Los Berrocales ez da igarotze-espazio bat. Bere bukatu gabeko hondakinaren izaerak geldiarazitako



- los abuelos de Gabeira se compararon un piso en el Ensanche, ¿no etiendo?

= Si, ya sabes una buena inversión a través de una cooperativa, era una oferta estupenda.

- Pero... el proyecto del Ensanche no se llegó a completar... hay zonas abandonadas, infraestructuras deficientes...

= Bueno sí, es cierto, la crisis, el estallido de la burbuja... pero bueno, los abuelos están contentos. Al parecer es un banis genial, ¡ con unas arecidas enormes para pasear!

- Ya... ¡ no te voy a negar lo de las arecidas!

OCTUBRE 2015

Conversaciones telefónicas sobre La Gavia

Irudia ~ 02 postal. Aurrealdea eta atzealdea.

Egilea ~ Irene García.

historia bat antzematea eta alegiazko hiri bat gogoraraztea ahalbidetzen du. Hondakina hausnarketa-iturri bezala erabili dut. Bukatua ez dagoena, irudimenak bukatu ohi du. Horrez gain, atzerapen bat ahalbidetzen du, esperientzia iraunkor bat. Hondamenaren arrastoek gauza bakoitzaren atzean dauden prozesuak ulertzea errazten dute. Prozesua ulertzeko galdera egokiak sortzea ahalbidetzen dute. Ez dut aztarnari buruz objektu itxiak balira bezala hausnartu, baizik eta beste zerbait izan ahalko litzatekeen zer edo zer bezala.

Deleuzek, bere *Logique du Sens* liburuan «Gertakarian gehiegizkoa den hori gauzatu egin behar da, horretarako hondakinak sortu behar badira ere» dio (Deleuze, 2005). Gertakariaren hondarra, momentuaren ondoren kentzen den hori, aztarna da. Horregatik, aztarnak denboraren tolesdura bezala agertzen zaizkigu, gure orainalditik beste denbora batera eramaten gaituztelako. Hondakina lurraldean irakurri ondoren esperientzia tenporala berreskura genezake. Antzemandako paisaia iradokitutako paisaiarekin nahasten da eta beste denbora batera mugitzen du. Hori dela-eta, aztarnak edo aurriak mugako paisaia bezala definitu daitezke esperientzia tenporalaren ikuspegitik. Hondakinaren gorputzean iragana bere hondarretan aurki genezake, hala ere, ezin daiteke hondakina nostalgiaren bultzatzaile indartsu bat bezala eskuratu (Huysen, 2008), imajinarioa pizten duen bultzada gogor bezala.

Los Berrocales-en barrena egindako itzulia, duen hondakin-egoerak baldintzatzen du. Eraiki gabeko hiri bat da, baina modu argi batean irakur daiteke lur gainean. Los Berrocales eraikitzen ez jarraitzea erabaki zen monumentu zehatz bat bezala aurkezten zaigu. (06 Postala)

Subjektuak bere pertzepzioarekin eguneratzen du hondakinaren potentzial ebokatzaila. Hori dela-eta, esperientzia tenporala aktibatzen duen tolestura/dispositibo bezala uler genezake. Norbanako bakoitzak bere hondakinaren irakurketa birtualizatzen du. Postalaren bilduma gertakari horien bilakaeraren artxibo bat da.

Hondakina ikuslea beste denbora batera daraman dispositibo bezala ageri da. Aztarnen sortasunak, instante propioak baino gehiago, etorkizuna eta iragana gainditzen ditu. Aztarnak, berauetatik sortzeko potentzialitatez daude kargaturik. Aztarnen egoera amaitu gabea iradokitzailea da eta imajinarioan berreraikitzen da. Itzulunguruetan bilatu diren aztarnak orainaldiarekin daude erlazionaturik eta hiriaren aldiriak beste ikuspegi batetik irakurtzea ahalbidetzen digute. Aztarna efimeroak dira eta, kasu askotan, luzera murriztu bat daukaten momentu oso konkretuetako hondakinak dira. Horregatik esploratutako espazioen egunerokotasunaren aztarnak dira. Bestalde, ezer zahartzen ez den garai bateko aztarnak dira, berriena beti bilatzen duen garai batekoak.

Bestalde, aztarnak oharkabean pasa litezke, ez badugu ezartzen modu kontziente batean tenporaltasunaren muga definitzen duen atari hori. Pertzepzioa ezberdina da norbanako bakoitzean, haien pertzepzio-atariak ezberdinak batira. Aztarnen gorputza gertakarien bibrazioak jasotzen dituen hartzaile material bat da eta esperientzia tenporalean mugak sortzen ditu beste tenporaltasun batzuetara jotzea ahalbidetzen duelako.



Irudia ~ 03 postala. Aurrealdea.

Egilea ~ Irene García.



Irudia ~ 04 postala. Aurrealdea.

Egilea ~ Irene García.




Irudia ~ 05 postala. Aurrealdea.

Egilea ~ Irene García.



Irudia ~ 06 postala. Aurrealdea.

Egilea ~ Irene García.



Iruña - 01 postal. Atzealde.

Egilea - Irene García.

Azarnak beste tenporaltasun bateko euskarriak bezala tratatu ditut. Hiriaren kanpoaldean hartzaile material hauek ikertu eta detektatzeak espazio hauek tenporaltasunetik ulertzea ahalbidetzen du, garrantzitsua baita arkitektura-proiektuak narrazio tenporal eta denbora pertsonal askotarikoak izatea. Horretarako beharrezkoa da labirinto tenporalera (BORGES, 2012) garamatzen materia ikertzea, «denboretan» pobrea den arkitektura horren ausentzia ulertzeko.

///

Bibliografía

Benjamin, W. (2012): «La obra de arte en la era de su reproductibilidad técnica», Ediciones Godot, Buenos Aires [1936, Das kunstwerk im zeitalter seiner technischen reproduzierbarkeit].

Borges, J.L. (2012): «El jardín de senderos que se bifurcan», Debolsillo, Sant Llorenç d'Hortons [1944, Ficciones, Emecé Editores, Buenos Aires].

Deleuze, G. (2005): «Vigésimo tercera serie, del Aión», in G. Deleuze, *Lógica del Sentido*, Ediciones Paidós Ibérica, SA, Bartzelona.

Huyssen, A.; Doane, M.A.; Shapiro, G.; Lee, P.M.; Villacañas, J.L.; Molinuevo, J.L.; Bourriaud, N.; Cruz, M. eta Osborne, P. (2008): *Heterocronías. Tiempo, arte y arqueologías del presente*, Cendeac, Murtzia.

Smithson, R. (2006): *Un recorrido por los monumentos de Passaic, Nueva Jersey 1967*, Gustavo Gili, Bartzelona.

Gaizka Altunak itzulia.